15 nº zbk

Beasaingo Udala

Beasaindik

MAYO **2017 MAIATZA**

Udal Aldizkaria *Revista municipal*



Badatoz Loinatz jaiak!

Ya están aquí las fiestas de Beasain

AURKIBIDEA | *ÍNDICE*

ETORKIZUNEKO BEASAIN ERAIKITZEN

2 ¬ Loinatz Jaiak guztionak eta guztiontzat

¬ Prebentziorako kanpainak jaiei begira

¬ *El Ayuntamiento de Beasain se solidariza con las personas refugiadas*

¬ Erauskin Plaza inguruko mugikortasun eta hirigintza aukerak aztertzeko prozesua abian da

¬ *Nueva aplicación para la OTA*

BEASAIN, HERRI BIZIA

4 ¬ Ballet emanaldia

¬ Korrika Beasainen

¬ Bertako produktuen azoka

¬ Irakurri, gozatu eta oparitu sariak

¬ XXVII. Beasain Idazlehiaketa

¬ Oria pasealekuko eta Zazpiturrieta kaleko igogailuak martxan

¬ Igartza Musika Beka irabazleen kontzertua

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

6 ¬ Ezagutzen al duzu "Beasain txartela"?

BEASAINDARRENTZAKO INFORMAZIOA

GUTUNA



Xabier Matarranz
Kultur zinegotzia

LOINATZ JAIAK, GUZTIONAK ETA GUZTIONTZAT

Egitarau zabal eta oparoarekin datozkigu aurtengo Loinatz jaiak. Aurten indarkeria matxistaren aurkako eta alkohol kontsumoaren prebentziorako kanpainetan jarri nahi izan dugu azpimarra.

Jaietan errespetuak izan behar du guztiaren oinarri, herriko jaiak, eguneroko kezkak eta ardurak atzean utzita, lagun artean, familian…gozatzeko egunak izaten baitira.

Gozatzeko asmotan, neurririk gabeko alkohol kontsumo desegokietara jotzen dute gazte askok. Horrelako egoerak ekiditeko, guraso, gazte, merkatari eta ostalariei zuzendutako hainbat ekimen ezberdin egin ditugu eta egingo ditugu, prebentzioa guztion lana eta ardura baita. Era berean, jai parekideagoak bultzatzeko, **Esan ezetz indarkeria sexistari** eta **Disfrutatu eta errespetuz jokatu** kanpainak sustatuko ditugu.

Joan den urtean haimetako gazteekin hasitako lanketari jarraipena emanez, aurten alkohol kontsumoaren eta ingurumenaren zaintzaren inguruan jardun dugu beraiekin. Izan ere, guztion inplikazioa lortu eta sustatzea ezinbestekoa da, guztion gozamenerako eta guztion neurrirako jaiak izan daitezen.

Unas fiestas de tod@S y para tod@s

Este año, hemos incidido de manera especial en la prevención; prevención contra las agresiones machistas para lograr unas fiestas más igualitarias basadas en el respeto, y prevención también en relación al consumo de alcohol entre menores. Asimismo, hemos trasladado a los jóvenes que instalan sus haimas el día de los disfraces la importancia que tiene preservar el medioambiente, especialmente, en lo que a la limpieza del río se refiere.

Por tanto, siendo la prevención, en cualquiera de sus ámbitos, responsabilidad de todas y todos, hemos querido implicar y concienciar a toda la población mediante diversas campañas con el objetivo de lograr, un año más, que nuestras fiestas sean unos días para disfrutar y pasarlo bien con las amistades o en familia.

PREBENTZIORAKO KANPAINAK JAIEI BEGIRA

Udalak, Loinatz jaiei begira, indarkeria sexistaren eta alkohol kontsumoaren prebentziorako kanpaina ezberdinak gauzatuko ditu.

Kanpaina horien baitan DBH 2, 3, eta 4ko ikasleekin heziketa saioak egingo dira eta gurasoei zuzendutako hitzaldi irekia antolatuko da. Haimak jartzen dituzten gazteekin ere lanketa berezia egin da, ez bakarrik alkohol kontsumoaren inguruan, baita ingurumenaren zaintzari dagokionean ere, bereziki erreka garbiketari lotuta.

Merkatari eta ostalariei kartelak banatuko zaizkie eta adin txikikoei alkohola ez saltzeko deia egingo zaie. Mozorro egunean, gazteei zuzendutako prebentzio eskuhartzea egingo da **BotilTZAR edo BotilTXAR?** (**BotellON o BotellOFF?**) interbentzio programa ibiltariaren bitartez. Helburu nagusiak dira, gazteak kontzientziatzea eta alkoholaren gehiegizko kontsumoak sor ditzakeen arriskuak gutxitzea. Loinatz jaien ondoren, **Lonjalaket** egitasmoa jarriko da martxan gazteen zenbait lokaletan.

Jai parekideagoen alde, berdintasun sailak **Esan ezetz indarkeria sexistari** eta **Disfrutatu eta errespetuz jokatu** kanpainak sustatuko ditu jaietan pegatina eta kartel ezberdinak banatuz eta herrian zehar zabalduz.

EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN SE SOLIDARIZA CON LAS PERSONAS REFUGIADAS

Un problema de todas y todos, requiere de la respuesta y ayuda de todas y todos y la Unión Europea apenas ha cumplido el 20% de los compromisos adquiridos, por ello y entendiendo que el principio de solidaridad implica prestar auxilio a quien se encuentra en situación extrema, el Gobierno Vasco ha pedido a las instituciones y entidades vascas reacción, colaboración y compromiso. Asimismo, ha propuesto crear un Sistema de refuerzo Complementario para la acogida de personas refugiadas.

Ante la actual crisis humanitaria, y en respuesta a esta petición, el Ayuntamiento ha puesto a disposición del Gobierno Vasco varias viviendas para la acogida de personas refugiadas en Beasain.

ERAUSKIN PLAZA INGURUKO MUGIKORTASUN ETA HIRIGINTZA AUKERAK AZTERTZEKO PROZESUA ABIAN DA



Udalak duela hilabete batzuk Kale Nagusia eta Nafarroa Etorbidea lotzen dituen eremua oinezko bihurtzeko froga jarri zuen martxan, oinezkoen guneak indartzeko helburuarekin eta tokiko merkataritza sustatzeko asmoz. Bien bitartean, hobetu beharreko hainbat kontu aztertzen eta lantzen ari da Udala, hala nola, trafikoari edota aparkalekuei lotutakoak.

Urrats bat gehiago emate aldera, hausnarketarako eta lanketarako prozesua abiatuko du hilabete honetan Udalak. Prozesuak helburu du eremuari lotutako mugikortasun eta hirigintza arloko aukerak eta irtenbideak aztertu, landu eta eztabaidatzea. Horretarako lantalde mistoa eta anitza eratu da, interes partikularretatik haratago eztabaidaren gakoa Beasaingo balio publiko eta kolektiboan jarriko duena.

Guztira, 3 lan saio egingo dira; horietan egungo egoera, eremuaren kokapena, aukerak, etorkizuna…aztertuko dira eta ondoren parte hartzaileek ebaluaketa egingo dute. Azkenik, Udalak prozesuaren baitan emandako urratsen eta lortutako emaitzen berri emango du.

Tras la puesta en marcha de la prueba de peatonalización de la zona entre Kale Nagusia y Nafarroa Etorbidea con el objeto de impulsar las zonas peatonales y promover el comercio local y habiendo analizado algunos aspectos a mejorar en cuanto a temas como el tráfico y el aparcamiento, el Ayuntamiento pretende dar un paso más. Por ello, este mes comienza un proceso de reflexión y trabajo para abordar el debate desde el interés general, más allá de los intereses particulares. Se ha creado un grupo mixto y diverso que realizará 3 jornadas de trabajo de las que se extraerán conclusiones que el Ayuntamiento informará a las y los Beasaindarras.

OHARRA *NOTA* lantaldean parte hartzeko interes berezia duen herritarra jar dadila Udalarekin harremanetan, aukerak aztertze aldera | *Las personas interesadas en formar parte de los grupos de trabajo deberán solicitarlo en el Ayuntamiento, donde se estudiarán dichas solicitudes.*

NUEVA APP PARA LA OTA



A finales de este mes se pondrá en marcha, la nueva aplicación para la OTA con el objetivo de dar mayores facilidades a la población a la hora de aparcar.

Esta nueva APP permite a las personas usuarias de la OTA abonar su estacionamiento sin tener que desplazarse hasta la máquina. Asimismo, no es necesario dejar el resguardo en el coche, se podrá ampliar el tiempo de estacionamiento y tras liberar la plaza de aparcamiento se podrá recuperar el dinero correspondiente al tiempo restante.

TAO APLIKAZIOA

Hilabete honen amaiera aldera, martxan jarriko da TAOarentzako aplikazioa. APP honek helburu du herritarrei aparkatzeko erraztasunak ematea.

Sistema berri honen bidez, erabiltzaileek TAOa ordaindu ahal izango dute makinara joateko beharrik gabe. Telefono mugikorraren bidez ordainduta bidez ordainduta, gainera, ez da ordainagiririk kotxean utzi beharko eta aparkamendua luzatzeko aukera izango da ordain-makinara bertaratu gabe. Aparkalekua utzi ondoren, erabili ez den denborari dagokion dirua itzuliko zaio erabiltzaileari.

APIRILEAN BEASAINEN

Ballet emanaldia Beasainen





Korrika Beasainen



Argazkia: Hitza



Argazkia: Hitza

Bertako produktuen hileko azoka berezia





Irakurri, gozatu eta oparitu kanpainaren baitan banatutako irakursariak





XXVII. Beasain Idazlehiaketako sari ematea (Argazkiak: Meet me in the north)











Igartza Musika Beka irabazleen kontzertua



Oria pasealekuko eta Zazpiturrieta kaleko Igogailuak martxan





EZAGUTZEN AL DUZU “BEASAIN TXARTELA”?



Teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerez baliatuta, Beasaingo Udalak, Bareak merkatari elkartearekin eta Caja Rural aurrezki etxearekin elkarlanean, “Beasain txartela” sortu du tokiko kontsumoa bultzatzeko.

“Beasain txartela” Antzizar kiroldegira sartzeko eta Udal bibliotekan maileguak eskatzeko erabil daiteke eta Beasaingo dendetan txartela erabiltzeak hainbat abantaila izango ditu

Honek ohiko Visa kreditu txartelaren zerbitzuak eskaintzeaz gain, Antzizar kiroldegira sartzeko eta Udal bibliotekan maileguak eskatzeko ere balio du. Txartel hau doakoa da, ordainketak inolako interesik gabe hiru hilabetetan egitea ahalbidetzen du eta txartel jabeak bere ohiko banketxean helbideratuta izan dezake eta ez derrigor Caja Rural-ean. Horrez gain, noski, munduko edozein puntutan erabili ahal izango da.

Gauzak horrela, Beasaingo irudia daraman txartel hau herriko mugetatik kanpo erabili ahal izango denez, Beasain herria ezagutzera emateko tresna ere izango da.

Erosketak Beasain txartelarekin egiteak hainbat abantaila ekarriko ditu. Horiek ezagutzeko Bareak elkarteko teknikaria elkarrizketatu dugu.

BAREAK ELKARTEKO BEGOÑA RODRIGUEZ TEKNIKARIA ELKARRIZKETATU DUGU

ENTREVISTAMOS A BEGOÑA RODRIGUEZ, TÉCNICA DE LA ASOCIACIÓN BAREAK

BAREAK
MERKATARI ELKARTEA

Nondik dator “Beasain txartela” sortzearen ideia?

Indarrak batzeko eta tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak babestu eta indartzeko helburuarekin ekin genion txartela sortzeari.

“La Beasain Txartela tiene como objeto impulsar y fortalecer el comercio y consumo local, así como atraer y fidelizar a la clientela de Beasain y de Goierri”

Inguruko herrietako ekimenak adibidetzat hartuta eta teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerez baliatuta, Udalarekin eta Caja Rural aurrezki etxeko ordezkariekin elkarlanean proiektua martxan jarri genuen.

Bide batez, txartel berriarekin bertako zein inguruetako herritarrak Beasainera erakarri eta bezeroak fidelizatu nahi ditugu.

Zein abantaila ekarriko dizkio txartel honek erabiltzaileari?

Hiru abantaila nagusi ekarriko ditu txartelak: hasteko, ohiko VISA txartel modura erabili ahal izango du erabiltzaileak; munduko edozein tokitan erabiltzeko aukera izanik.

Txartela doakoa da eta ordainketak hiru hilabetetan ordaindu ahal izango dira inolako interesik gabe. Txartela edozein banketxean helbideratu daiteke, eta ez derrigor Caja Ruralen.



El Ayuntamiento de Beasain, en colaboración con la asociación Bareak y la Caja Rural, se ha lanzado a la creación de la tarjeta "Beasain txartela" con el objetivo de impulsar el consumo local.

Esta tarjeta además de ofrecer los mismos servicios que las tarjetas habituales, también se podrá utilizar para entrar al polideportivo o pedir préstamos en la biblioteca municipal. Asimismo, realizar las compras con la nueva tarjeta permitirá lograr descuentos o acceder a promociones en los comercios asociados de Bareak.

Bareak elkarteko dendetan Beasain txartela erabilita, deskontuak eskuratzeko, erosketak epeka ordaintzeko eta promozioetan parte hartzeko aukera izango dute bezeroek.

"Con la nueva tarjeta la clientela podrá aplazar pagos, conseguir descuentos o participar en las promociones organizadas por los comercios asociados de Bareak"

Bestalde, kiroldegian sartzeko eta Udal liburutegian maileguak egiteko ere balioko du.

Zer egin behar da txartela eskuratzeko?

"Las personas interesadas en adquirir la nueva tarjeta deberán rellenar la hoja de solicitud y entregarla, junto con una copia del DNI, en la sucursal de la Caja Rural"

Dagoeneko kide diren edota izan daitezkeen herritar guztiei informazio-gutuna bidali diegu txartela aurkezteko eta non eskuratu dezaketen jakinarazteko.

Txartela eskuratzeko interesa dutenek eskaera orria bete eta NA-aren kopiarekin batera Caja Ruralaren egoitzara eraman beharko dute.

Oraindik ez dira txartelak kaleratu, baina maiatza-ekainean jada martxan izango dira eta beraz, aurrerago, txartela kaleratzearekin batera martxan jarriko dugun kanpainaren berri emango dugu.

Kanpaina berezirik egiteko asmorik al duzue txartelaren erabilera sustatzeko?

Oraindik ezer itxia ez dagoen arren, Ekainean deskontu kanpaina oso interesgarri bat antolatuko dugu. Aurrerago zozketak egiteko, txartelaren bidez erosketa-txekeak banatzeko… asmoa daukagu ere. Hala ere, aurretik esan bezala, txartela martxan jartzen denean iragarriko ditugu zehazki kanpainaren nondik norakoak zein izango diren.

Zein arrazoirengatik animatuko zenituzke herritarrak txartela egitera?

Aipatutako abantailez gain, Beasain txartela erabiliz tokiko merkataritza babestu eta sustatuko da, eta merkataritzak eta ostalaritzak ematen baitiete bizia kaleei.

Beraz, herriko eta bertako denden, tabernen eta jatetxeen aldeko apustua egiteko eta bertan kontsumitzeko deia egin nahi nieke herritarrei. Orain gainera, doakoa den txartel berriarekin hainbat abantaila izango dituzte herritarrek. Beraz, ez dago aitzakiarik txartela ez egiteko.

"Tenemos previsto llevar a cabo una campaña especial para impulsar el uso de la tarjeta en Beasain; por tanto animo a toda la ciudadanía a adquirir la tarjeta para que además de que se beneficien de las ventajas que ofrece, ayuden a proteger y fortalecer nuestro comercio que es sinónimo de un municipio y unas calles con ambiente y vida"

IKASLE BERRIENTZAKO MATRIKULA EPEA

maiatzaren 8tik 19ra

astelehenetik asteazkenera,
9:00-13:30 eta 17:00-19:00
ostegun eta ostiraletan, 9:00-13:30

PLAZA MUGATUAK

Izenemate ordena errespetatuko da

BEASAINGO LOINATZ Musika Eskola 9:6

PLAZO MATRÍCULA NUEVO ALUMNADO

del 8 al 19 de mayo
de lunes a miércoles
9:00-13:30 y 17:00-19:00
jueves y viernes, 9:00-13:30

PLAZAS LIMITADAS

Se respetará el orden de inscripción.



BERTAKO PRODUKTUEN AZOKA
MERCADO PRODUCTOS DE TEMPORADA

MAIATZAK 6 | *6 de MAYO*

11:30

Kuko jatetxeko Iker Markinezen "Euskal Sukaldaritza Praktikoa" liburuaren aurkezpena *Presentación del libro*

12:00

Azokako produktuekin egindako pintxoak
Pintxos elaborados con productos de temporada

12:00

Loreak aldatzen ikasteko tailerra haurrentzat
Taller botánico para niños y niñas

12:30

Loreak zaintzen ikasteko hitzaldia
Charla sobre el cuidado de las flores

13:30

Azokako produktuez osatutako 2 saskiren zozketa Sorteo de 2 cestas



LOREZ APAINDUTAKO LEHIO ETA BALKOIEN LEHIAKETA
CONCURSO PARA DECORAR VENTANAS Y BALCONES CON FLORES Y PLANTAS

Izen-ematea *Inscripción:*
merkataritza@beasain.eus | iGunea

Epea *Plazo:*

Balkoiek apainduta egon beharko dute ekainaren 15etik uztailaren 30era *las ventanas y los balcones deberán estar decorados desde el 15 de junio al 30 de julio.*

Sariak *Premios:*

1. saria *1er premio* **200€ | 2. saria** *2º premio* **100€**

Larunbateko azokako lore-saltzaileen postuetan gastatzeko *Para gastar en los puestos de flores del mercado.*

DATUEKIN JOLASEAN

2016an, guztira, 19.326 arreta egin dira iGunean.

Bataz beste hilean 1.610 pertsonei ematen zaie zerbitzua iGunean.

Izapiderik ohikoenak biztanle erroldak, zerga, tasa eta prezio publikoak eta informazio eskaerak izaten dira.

*En 2016 se han realizado **19.326 atenciones a personas en el iGunea.***

***Mensualmente** en el iGunea se realizan un promedio de **1.610** atenciones.*

*Los **trámites más comunes** son los **empadronamientos, impuestos, tasas** y **precios públicos** y peticiones de **información**.*

JAKINARAZPENAK
NOTIFICACIONES


EGUTEGI FISKALA *CALENDARIO FISCAL*

ZERGAK ETA TASAK *IMPUESTOS Y TASAS*	**Kobrantza epea** *Periodo de cobro*
Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ) *Impuesto sobre Bienes Inmuebles (IBI)*	**2017.05.15 - 2017.06.30**

***Helbideratutako ordainagiriak borondatezko epearen azken egunean kobratuko dira** *El cobro de los recibos domiciliados se realizará el último día del periodo voluntario.*

LOTURA INTERESGARRIAK
ENLACES DE INTERÉS

- **kzGunea** Maiatzeko ikastaroak | *Cursos de mayo* - www.kzgunea.eus
- **Musika Eskola** www.beasaingomusikaeskola.eus
- **Antzizar kiroldegia** www.antzizar.net
- **Udal Euskaltegia** www.udaleuskaltegiak.eus



Beasaingo Udala

Lege gordailua SS 403-2016